

FUNTSEZKO BALIABIDEAK:

Bezeroei eskainiko dieguna eskaintzeko, zenbait baliabide ezinbestekoak izango dira. Gure proiektuari dagokionez, adibidez, kalitate oneko argazki kamerak dira oinarri. Hala ere, beste zenbait baliabide ere beharko ditugu. Esate baterako, argazki eta bideoak editatzeko aplikazio egokiak (Adobe Premiere Pro, Cyberlink powerdirector 18...), gure argazki eta bideoak itsatsiko ditugun webgune bat. Hauek guztiak aurrera eraman ahal izateko, gutxi gorabehera lau langile behar izango ditugu: bi argazkilari, bezeroekin harremanetan jartzen dena, Interneten aditua den langile bat, eta bertan argazkiak eta bideoak itsasten dituen, bideo eta argazkiak editatuko dituen pertsona bat, eta azkenik, dena ordenean mantenduko duena eta hilabetero lan plangintza egiten duena.